

Elgoibar - 1284. zenb.
XX. urtea - 2023-05-05



Erraldoien dantza

TOKIKOM

BARREN



ERROMERIA FAMILIAN

MAIATZAK 12 (Azkue auzoan)

17:00etan
ERROMERIA

Ondoren...
TAILERRAK (fruta
brotxetak,
eskulanak, aurpegi
margoketa...)

19:30etik aurrera...
MUSIKA! (Bertan
afaltzeko
gonbidapena
egiten dizuegu).

EKINTZA DOAN IZANGO
DA. ANIMA ZAITEZTE
GUREKIN ONDO
PASATZERA!



AURREMATRIKULA MAIATZAREN 8tik 26ra

IKASTETXE PUBLIKO
DOAKOA



UNI
EIBAR
ERMUA



DOI MAILAKO BIKIDAK EBI MAILAKO BIKIDAK

F



EGOKITZAPEN FISIKOA

GIZARTE ETA KIROL IRAKASKUNTZA ETA ANIMAZIOA

M



NAZIOARTEKO MERKATARITZA
GARRAIO ETA LOGISTIKA
MERKATARITZA JARDUERAK

A



ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK
+ Administrazioa eta Finantzak eskaintza partziala arratsaldez.
ADMINISTRAZIO KUDEAKETA

I



SAREKO INFORMATIKA SISTEMEN ADMINISTRAZIOA
WEB APLIKAZIOEN GARAPENA
PLATAFORMA ANITZEKO APLIKAZIOEN GARAPENA
SISTEMA MIKROINFORMATIKOAK ETA SAREA



ESPEZIALIZAZIOAK
ZIBERSEGURTASUNA
INFORMAZIOAREN
TEKNOLOGIEN
INGURUNEETAN

www.uni.eus

Otaola Hiribidea, 29 | 20600 Elbar, Gipuzkoa | 943 89 92 11 | idaszkaritza@uni.eus | uni.eus

Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

barren@elgoibarkoizarra.eus

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitako erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Izaro Etxegibel, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Asier Guisasola, Maialen Sanchez, Leire Kerexeta. **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.700 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



facebook.com/barrenaldizkaria



twitter.com/barreneus



instagram.com/barrenaldizkaria



youtube.com/@Elgoibarrennet

Edurne Izagirre

Psikologoa

Hazkuntzaren gurpila



*"Ausar gaitzen
egun ilunetan
bururaturiko hura
martxan jartzen"*

Neguko iluntasunak geure barne iluntasunekin bat egiten lagundu ohi digu, geure bizitzan aldatuko genukeena garbi identifikatzera iritsiz; inspirazio momento horietan ez dugu ekintzarako animorik.

Udaberriarekin argia eta koloreak datoz, eta opporraldirako planak eta lagunarteko aisialdi planak bururatu eta sortzen hastearekin batera, geure bizitzan dugun pozerako aukerarekin konektatzen dugu; gozamen hori sakrifizioari dagokion sari bezala ulertzean bizitzan dugun sakrifizio edo sufrimendu maila ontzat eman genezake, onargarritzat.

Honela, gurpilean ibili gaitzke etengabe... Geure funtzionamendua naturarenaren antzera ziklikoa da, baina hazteko eta garatzeko beharrezko funtzionamendua espirala da, ziklo bakoitzean pausotxo bat aurrera eginaz, jasotze aldiaren ondoren aurreranzko bultzadarekin desioak martxan jarritz, ezezaguna denaren beldurrez eje berberean gelditu gabe etengabe. Ausar gaitzen egun ilunetan bururaturiko hura martxan jartzen.

4 GUTUNAK

BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia eta Eskutitzak ataletan adierazitako enantzikizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

Proposamen bat

Hau elgoibartar guztientzat da. Udal hauteskundeetarako zerrendaburuak ezagutu ditugun honetan, interesgarria eta gomendagarria ere izango litzateke Herriko Antzokian hautagaien arteko eztabaida bat antolatzea, BARREnekoek gidatuta. Zer deritzozue?

J.U.

Zuzenketa

Aurreko asteko astekarian, kiroldegiko beharginek hasi duten grebari buruzko albistean, "EAJ-k "ahalegina egitea" eskatu die langileei jarri genuen BARREn, testu barruko lerroburuan. Zuzena, baina, honakoa litzakete: EAJ-k "ahalegina egitea" eskatu die bi aldeei, langileei eta BPXport enpresari.

BARREN




XI. URTEURRENA *Angel Mari Arregi Cano*

2012ko maiatzaren 11n hil zen.

***Gure ondotik joan zara,
baina betiko izango zaitugu gure bihotzean.***

Familiakoak



VI .URTEURRENA *Emiliano Marcos de la Torre*

2017ko maiatzaren 4an hil zen, 85 urte zituela.

Betirako gure bihotzetan.

Etxekoak





Zuen kekek, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus



943 744 112




688 655 658



Lekuederreko parkea garbitu dute, baina materiala desegin da:

"Lekuederreko parke berdearen hasierako koloreak berreskuratu dituzte garbitzean, eta hori oso ondo geratu da, baina parkearen materiala desegin egin da garbiketa lan horretan, eta orain, umeak zikin-zikin eginda geratzen dira. Espero dugu behintzat material hori toxikoa ez izatea".



Guass-eko autobus geltoki aurrean bi zulo handi daude:

"Guass-eko autobus geltoki aurrean asfaltoa hondatuta dago, eta bi zulo handi daude lurrian. Euria egiten duenean ur zikinez betetzen dira, eta sekulako putzuak sortzen dira. Aurreko batean autobusaren zain negola auto batek gupila zulo horietan sartu eta erabat zipriztindu ninduen. Dagokionari eskatu nahi diot zulo horiek konpontzeko".



Igogailu urdineko pasabidea oso iluna da: "Goizean goiz joaten naiz lanera, eta ilunetan hartzen dut Trenbide kaleko igogailu urdina. Igogailutik irteetan egurrezko pasabidea oso ilun egoten da, eta ez da ezer ikusten. Kristalak edo txakur kakak zapaltzeko arriskua dago. Pista Beltzean badago argia, baina pasabidea bera aspalditik dago argirik gabe. Eskertuko nuke konpontzea".



Txalo bat Inazio Bereziartua musika Eskolari: "Musika eskolako abesbatzako ikasleak Barriara joan ziren, eta oso ondo pasatu zuten. Eskerrik asko, musika aitzakitza hartuta horrelako asteburupasa antolatzeagatik. Segi horrela!".



Udaleku irekiak, udaleku ibiltaria eta surf ikastaroa eskaini ditu Elgoibarko Udal Gaztelekuak udarako

2005 eta 2010. urteen artean jaiotakoentzako udarako eskaintza aurkeztu du Elgoibarko Udal Gaztelekuak, eta dagoeneko zabaldu dute izena emateko epea. Udaleku irekiak, ibiltariak eta surf ikastaroa antolatu dituzte eta maiatzaren 14a izango da izena emateko azken eguna. Plazak mugatuak izango dira, eta Elgoibarren erroldatutako nerabeek lehentasuna izango dute.

Udaleku irekietan bi txanda izango dira. Lehenengo txandan 2009-2010 bitartean jaiotakoek eman ahal izango dute izena eta haxe izango da programa: Uztailak 3: egun osoko txangoa: Ur parkea (Logroño); Uztailak 4: arratsaldeko jarduera: hondartza (Ondarroa); Uztailak 5: egun osoko txangoa: Escape room (Donostia); Uztailak 6: goizeko jarduera. Trukearen jokia (Eibar); Uztailak 7: goizeko jarduera: Sukaldaritza lehiaketa (gaztelekuan) Bigarren txanda 2005-2008 urten artean jaiotakoentzat izango da. Hona egitaraua: Uztailak 17: egun osoko txangoa. Ur parkea (Senpere); Uztailak 18: arratsaldeko jarduera. Ilunabarra (Deba); Uztailak 19: arratsaldeko jarduera. Hondartza (Mutriku); Uztailak 20: egun osoko txangoa. Lasertag (Donostia); Uztailak 21: goizeko jarduera. Sukaldaritza lehiaketa (gaztelekua).

Udaleku ibiltarirako 2005-2010 bitartean jaiotakoek eman dezakete izena, eta uztailaren



10etik 12ra egingo dute. Elgoibar-Bergara-Oñati. Bi gau igaroko dituzte kanpoan. Surf ikastaroa ere, adin tarte osoarentzako izango da. Zumaian izango da ikastaroa, uztailaren 24tik 28ra bitartean, goizez.

Prezioak

Udaleku irekietan eta udaleku ibiltarian izena emateko prezio bera ordaindu beharko da. Prezio orokorra 35 eurokoa izango da, baina merkeago izango dute ondorengoek: Elgoibarren erroldatutako familia ugariak, guraso bakarreko familiek edota bigarren seme-alaba bat apuntatzen dutenek. Horiek denek 24,5 euro ordaindu beharko dituzte. Elgoibarren erroldatuta dauden eta DSBE edo GLL (DSBE/GLL) jasotzen duten familiek, berriz, 10,5 euro. Surfeko ikastaroaren prezioa, berriz, 45 eurokoa da, baina hemen ere merkeago izango dute gorago zehaztutakoek. Lehenengo multzokoek 31,5 eta bigarren multzokoek, 13,5.

Hilaren 15era arteko epea dute Ameikutz musika eskolako ikasleek datorren ikasturterako matrikula egiteko



Aurten Ameikutz Musika Eskolako ikasle izan direnek zabalik dute datorren ikasturterako izena emateko epea. Martitzenean zabaldu zuten epea, eta hilaren 15era arteko tartea izango dute izena emateko. Matrikula egiteko 30 euro ordaindu beharko dituzte (familia bereko hiru kide baino gehiagok izena ematen dutenen kasuan, 25 euro). Kuotak berriz, ondorengoak izango dira: musika tailerra (20 euro); musika hizkuntza + abesbatza (30 euro); musika hizkuntza + abesbatza + instrumentua (65 euro); musika hizkuntza + abesbatza + instrumentua + talde instrumentala (80 euro) eta helduen abesbatza: 20 euro.

Dolmenen ibilbidea ezagutzeko bisita gidatua antolatu dute hilaren 7rako, domekarako

Dolmenen ibilbidea ezagutzeko bisita gidatua antolatu du Debegesak maiatzaren 7rako. Karakate-Irukurutzeta mendilerroan zehar egingo dute ibilaldia, Soraluze, Elgoibar eta Bergarako udalerriak lotzen dituen Elosua-Plazentziako Estazio Megalitikoa zeharkatuz. 9 km-ko ibilbidean 7 monumentu megalitiko bisitatuko dituzte, eta lau bat orduko mendibilaldia izango da. Ibilaldira joateko erreserba egin behar da 657 79 46 77 telefono zenbakira deituta edo info@begi-bistan.com helbidera idatzita. Azalpenak euskaraz emango dituzte. Maiatzaren



21ean, 10:00etan, irteera bera errepikatuko dute, baina gaztelaniaz izango dira orduan azalpenak.

Errenta aitortpena euskaraz egitera animatzeko deia egin dute

Errenta aitortpena euskaraz egitera animatu nahi dituzte herritarrak Elgoibarko Udalak eta Elgoibarko Izarrak ere. Bi bide daude horretarako: Internetez, gipuzkoa.eus webgunean sartu eta Ogasunarekin harremanetan jartzeko datuak aldatuta, eta aurrez aurre, Ogasuneko herritarren arretarako bulegoetan edo Aldundiko erregistro zentrolean. Errenta kanpaina egiteko orduan ere, aukeratu daiteke hizkuntza. Autolikidazio proposamenaren bidez, errenta mekanizatuko bulegoan laguntzen digun langileari eskatuta, Ogasunaren Zergabidea plataformaren bidez edota aitortpena egiteko gestoriaren bidez.

Berdintasuna sustatzen duten proiektu eta programak diruz lagunduko dituzte

Berdintasuna sustatzen duten proiektu eta programak diruz laguntzeko bi deialdi zabalduko ditu Elgoibarko Udaleko Berdintasun Sailak. Guztira 11.000 euro banatuko ditu. Horietatik 5.000 euro genero berdintasuna sustatzeko programa eta jarduerak abian jartzeko banatuko ditu, eta laguntza horiek eskatzeko azken eguna maiatzaren 29a izango da. Zabalduek bigarren deialdia berdintasunaren aldeko programa zehatzak garatzen dituzten Elgoibarko emakumeen elkarteentzako izango da, eta 6.000 euro banatuko ditu Udalak. Hor ere maiatzaren 29a izango da dirulaguntza eskatzeko azken eguna.

EH Bilduk proposatutako ildo estrategikoak azaldu ditu Arnaldo Otegi Elgoibarren



Arnaldo Otegi EH Bilduren koordinatzailea elkarrizketatu zuen martitzenean Jon Telleria kazetariak Elgoibarren, Aita Agirre kultur gunean. Hasierako aurkezpena eginda, aktualitatezko hanbat gairen inguruan galdetu zion Telleriak, tartean udalari mailako zenbait gairen inguruan. Otegi politikaren orokorraren inguruko irakurketa ere egin zuen solasaldian, EH Bilduk landu eta proposatutako ildo estrategikoak ere azaldu zituen.

Mendaroko EAJk aurkeztu du zerrenda osoa



Udal hauteskundeetarako osatu duen lantaldea aurkeztu du Mendaroko EAJk. Esana zuten Iñaki Arregi aukeratu zutela berriro alkate izateko hautagai, eta martitzenean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean behin betiko zerrendak argitaratu ondorenean egin zuten publiko lantaldearen argazkia. Iñaki Arregiz gain, honako hauek osatzen dute Mendaroko EAJren zerrenda: Nerea Isasi Bedayo, Nuria Gerola Horrillo, Amaia Urra Mardaraz, Felipe Castro Gomez, Eduardo Zubiaurre Murua, Raul Santamarta Criado, Azibar

Iraolagoitia Gallastegi eta Jose Manuel Muñoz Diaz. Mendaroko EAJtik esan dute duela lau urte ekindako proiektuarekin jarraitzeko aurkezten dutela Iñaki Arregi buru duen taldea. "Esperientzia eta berrikuntza uztartzen dituen taldea da, Mendarorekin beti izan dugun konpromisoari eutsiz, herrigintzan lan egiteko prest dagoena". Eta gehitu dute: "Proiektua badugu. Gertutasuna eta kudeaketa ona gure lanaren ardatz izango dira, Mendarok aurrera egiten jarraitu dezan, Gipuzkoa eta Euskadirekin batera".

Udarako pintura tailerrak antolatu ditu Egurrek

Egur Arte Tailerrak udarako eskolak antolatu ditu, LH4tik DBH2ra arteko ume eta nerabeentzat. Sormena landuko dute, teknika desberdinak erabiliz: serigrafia, grabatua, murala, urban sketching, jolasak... Astelehenetik barikura izango dira saioak, 9:30etik 12:30era. Bost txanda daude aukeran: lehenengoa bi eguneko izango da, ekainak 22 eta 23, eta horrek 15 euroko

prezinoa dauka. Gainerako txandak astebetekoak izango dira: ekainaren 26tik 30era, eta uztailaren 3tik 7ra, 10etik 14ra eta 17tik 21era. Txanda bakoitzaren prezinoa 37 eurokoa da. Txanda bat baino gehiago hartzen dutenek edo bigarren umea ere apuntatzen dutenek %10eko deskontua izango dute. Izena emateko edo informazio gehiagorako: 666 557 538

Biharko iragarrita zegoen giza katea bertan behera geratu da

Elgoibarko Sarek mobilizaziorako deia egina zeukan biharko, baina aurretik antolatuta zeuden beste kale-jarduera batzuk ere badaudenez,

giza-katea bertan behera laga dute. Data berria zehazten dutenean jakinaraziko dutela adierazi dute taldeko arduradunek.

ELAXAR LERSUNDI

Ondarroan bere burua hil zuen Ekai Lersundi gazte transexualaren aita

✍ Ainara Argoitia

'Mi pequeño gran samurai' dokumentala emango dute maiatzaren 9an, Elgoibarko Lila Emakumeen Etxean, 18:00etan hasita. Ez da emanaldi hutsa izango, baina. Izan ere, dokumentaleko protagonista nagusia den Ekai Lersundi gaztearen (Ondarroa, 2001-2018) gurasoak ere gonbidatu dituzte saiora. 2017an, 15 urte bete zituenean, mutila zela aitortu zien etxekoei eta ingurukoei Ekaik eta haien babesba jaso zuen. 16 urte zituela, Gurutzetako Ospitalean hormona bidezko tratamendua hasi zain zegoela, luze eginda, bere burua hil zuen. LGTBI+ kolektiboaren aktibista eta erreferentea da Ekai Lersundi geroztik eta haren borrokara batu dira gurasoak, Elaxar Lersundi eta Ana Martinez.



“Kapritxoz inork ez du aukeratzen bide zailena bizitzeko”

Bada denbora hiru urte Arantxa Ibarrek 'Mi pequeño gran samurai' aurkeztu zuela. Nola hartu zenuten dokumentala egiteko proposamena? Eta zenbateraino izan zaizue lagungarri?

Gauza handia izan da guretzat. Ekai suizidatu eta hiru egunera etorri zitzaigun guri Arantxa zerbait egin nahi zuela esanez eta 'konforme' esan genion. Handik bost-sei hilabetera etorri zitzaigun berriro, gidoiarekin, eta asko gustatu zitzaigun, bai Ekaik eta baita geuk ere transexualen sufrimendua eta suizidioaren gaia ikustarazi nahi genituelako. Diru bilketa bat egin genuen proiektua gauzatu ahal izateko, eta herritarrek itzelean erantzun zuten. Bi egunetan grabatu genuen, Ondarroako Itsas Aurre pasealekuan Ekairen omenezko oroitarria inauguratu genuen zapatuan eta biharamunean. Guk ez genuen bestela ere Ekai sekula ahaztuko, baina dokumentala erreminta ona izan da beste

jende batek ere Ekai beti gogoan izan dezan. Ekaik idatzita laga zuen berarentzat berandu zela baina espero zuela berak hasitako bidea baliogarri izatea atzetik zetozen beste batzuentzat. Eta guk berdin. Gure semea suizidatzen zen azkena izatea nahi genuela esan genuen, eta zoritxarrez hori ezingo da izan, besteak beste gizartearen parte bat transfoboa delako oraindik, baina semeak hasitako borrokan dena emateko gaude.

Herriz herri zabiltzate dokumentalarekin, baita eskolaz eskola ere, semearen adinkide izango zirenak sentsibilizatzen. Zer da ikusten duzuna?

Deitzen didaten leku guztietara joaten naiz. Markinara, adibidez, hiru bat urtez joan naiz 15 bat urtekoengana eta niretzat oso garrantzitsua da hori, gaztetatik hasi behar delako gai hauek lantzen eta ikustarazten. Ikusten dudana da aurrera egin dugula, baina oraindik lan handia

dagoela egiteko. Besarkada asko ere jasotzen ditugu eta horrek betetzen gaitu.

Hormona bidezko tratamendua hasi zain zegoen zuen semea suizidatu zenean. Luze egin zitzaion zain egotea eta hala utzi zuen idatzita.

Luze ba! Hormona bidezko tratamendua hasteko zain zegoen. Bartzelonan hasteko aukera bazeukan Trànsit unitatean, analitikak eta gainerako gauzak bidalita, baina Ekaik hemen hasi nahi zuen tratamendua; hemen arindu nahi zuen bidea bere egoera berean zeuden beste batzuentzat ere, eta Gurutzetako Ospitalean eskatu genuen tratamendua. Hein handi batean, horregatik jarri genion dokumentalari ere *Mi pequeño gran samurai* izenburua, samurai bat ez delako parean dituenak garaitzeko borrokatzen, atzean dauzkanekiko maitasunagatik baizik. Hori izan zen arrazoi bat, eta bestea J-pop eta manga kultura itzel gustatzen zitzaioela. Ekai suizidatu zen sasoiaren ere, legeak aukera ematen zuen hemen tratamendu mota hori 16 urtetik aurrera egiteko, baina baimena atzeratu egin zen behin eta berriro. Burokraziak ez dauka bihotzik. Eta nerabazaroko gorputz aldaketen sasoi horretan hilabete denbora asko da zain egoteko. Emakumezko sexu-ezaugarriak garatzen hasi zen Ekai, eta ezin izan zuen gehiago. 2018ko otsailaren 15ean suizidatu zen. 16 urte zituen.

Bere egoeran beste askok ez dutena izan zuen zuen semeak: senideen eta ingurukoen babesa. Oroitzen duzu mutila zela esan zizun eguna?

Bai. 15 urterekin esan zigun mutila zela eta hasieran golpea izan zen, beldurtzen gintuelako semeak sufritu behar izateak. Ekairi sekula ez zitzaion soinekorik janzterik gustatu eta ezta neskekin lotzen ditugun beste kontu batzuk egitea ere, eta guretzat hori zen, neska "maskulinoa", baina ez, Ekai mutila zen. Eta guk ikusten genuen transexuala izanda gizarte honetan sufritzea tokatuko zitzaioela. Baina onartu, onartu, genuen; zelan ez ba! Garbi esan genion guri ez zitzaigula ardura mutila edo neska bazen, gurea zelako eta berdin-berdin maiteko genuelako. Guri esan ondoren, eskolako whatsapp taldean jarri zuen mutila zela eta Ekai deitzea nahi zuela. Eta handik gutxira negarrez ikusi genuen. Pentsatu genuen komentarioren batek min egingo ziola, baina ez, kontrakoa zen: hunkituta eta pozik zegoen jasotako babes mezuekin; ez zuen erantzun hori

"Samurai bat ez da parean dituenak garaitzeko borrokatzen, atzetik dauzkanekiko maitasunez baizik. Horregatik jarri genion dokumentalari 'Mi pequeño gran samurai'"

espero. Nik beti esan dut gure semea sentiberegia eta onegia zela mundu honetarako. Baina ausarta ere bazen, eta borrokalaria, eta bere borrokaren transzendentziaz kontziente izanda, aktibista handia bihurtu zen. Eskolan formakuntza saioak ere bultzatu zituen. Aitortuko dizut berarekin haserretzen ginenean lehengo izena irtetzen zitzaigula sarri amari eta niri, baina halakoetan berak esaten zigun: 'Egon trankil, 15 urtez bestera deituta, normala da'. Pertsona bakarrak ez zion gehiago lehengo izenez deitu, Iradik [arriba]. Ekaik bazekien bereizten nor nahasten zen eta nork egiten zuen nahita, min egiteko.

Badaude oraindik transexualitatea kapritxo kontu bat dela uste dutenak eta badaude uste dutenak adin goiztiarrean haurrak zaila duela zer den jakitzea. Zer esango zenieke?

Hau kapritxoa dela esaten duenak ez du ezagutu pertsona trans bat. Zer esango niekeen? Ergelak ez izateko. Inork ez du bizitza konplikaturako dion ezer izaterik nahi, eta gaur eta gizarte honetan, transexuala izatea *putada* bat da. Inork ez du aukeratzen kapritxoz biderik zailena bizitzeko. Hemen bakoitza da badena eta norberak daki ondoen zer den; eta hori, beti.

Karteldegira iritsi da '20.000 especies de abejas' filma. Horrek ere Ekai hil ostean idatzi zenuen testu hartan dauka oinarria. Ikusi al duzu?

Ekaireren gorputza hil-autora jaitsi eta hiru bat ordura idatzi nituen nik haiek berbak, barru-barrutik, eta testu huraxe irakurri zuen, kontizu, Esti Urresolak. Filma ikusi ez baduzu esango dizut, ikusteko. Ni neu ez naiz 90 minututik gorako ezer ikusteko gai, eta film hau motza eta dena egin zait. Esan ere egin nion Estiri, zinemetako jirak amaitzen dituenean, eskola guztietan eman beharko luketela. Sofia Otero filmeko protagonista ikusi duenak garbi ikusiko



du ume horrek heldu askok baino zentzun handiagoa daukala.

Gaur bost urte baino erreferente gehiago dauzkagu, bai eta helduleku gehiago ere. Trans Legea ere onartu zuten iaz. Bost urte hauetan zertan egin da bereziki aurrera?

Aldaketak egon dira, bai. Sozialki aurrerapauso handiak eman dira, batez ere, ikusgarritasunean eta onarpenean. Estatu mailako Trans Legea ere onartu zuten, bai. Lege horrek ekarri duena bageneukan lehendik ere Euskal Herrian hein baten, baina ondo dago estatu mailako lege bat izatea, lurraldez lurralde aldatzen diren araudiak izan beharrean, lehen moduan. Ez zegoen ondo Euskal Herrian jaiotako batek eta Leonen jaiotako beste batek eskubide berberak ez izatea. Onura handi bat hori izan da, eta bestea, dudarik gabe, transexualitatea despatologizatzea, lege hori onartu zenetik, transexualek ez dutelako beren burua gaixotzat jo behar Nortasun Agirian legezko sexua aldatzeko. Baina atzera ere egin dugu hemen. 12 urtetik beherakoek ezin dutelako orain generoa aldatu erregistroan. [12tik 14ra arte epaile baten baimena behar dute, 16ra arte gurasoena eta hortik aurrera norberaren hautua da]. Erreferente gehiago daude, lege bat ere bai transexualitatea buruko gaixotasuna ez dela

dioena, baina oraindik ere transfobia handia dago gizartean, eta zer esanik ez eskuin muturrekoen buelta horretan. Pertsonaje asko dago transexuala izatea zer den ere ez dakiena, baina ahoak eman ahala jarduten dena. Halakoen aurrean Ondarroan esaten dugu: *Artículo tres, caso putik ez.*

Egin dezagun berba suizidioaz. Zer behar genuke suizidioak tabu izateari lagatzeko?

Ez sinistekoa da era guztietako gaietz berba egiten den garaian, suizidioak tabu izaten jarraitzea. Ni ehorzlea naiz 37 urtean eta gure etxean beti berba egin izan da natural heriotzaz. Suizidioaz ere hala egin behar da berba, natural, berba egitea prebentzioa lantzeko modua ere badelako. Heriotzari beldurra diogu, baina, eta suizidioari gehiago. Askok pentsatzen dute suizidioaz berba egitea

*"Ni bizi naizen artean,
ni ezagutzen nauenak
Ekai ezagutuko du;
ni bizi naizen artean,
Ekai biziko da"*



arriskutsua dela intzidentzia-maila handitzea ekar dezakeelako. Hau da, bultza ditzakegula beste batzuk suizidatzera, baina ez. Hori ez da egia. Berba egitea onuragarria da, betiere ondo berba egiten baldin badugu. Garrantzitsua da sentsazionalismotik, morbotik, urruntzea. Zergatik jakin nahi du jendeak suizidatu den batek zer metodo erabili duen bere burua hiltzeko? Hori ez da inportantea inondik inora. Niri inork ez dit entzungo sekula Ekaik nola egin zuen.

Suizidioaren inguruan oso zabaldua dago beste uste ustel bat: suizidatzen denak ez daukala bizitzeko gogorik. Hori ere ez da egia. Suizidatzea erabakitzen duenak ere bizi nahi du, zuk eta nik bezala, baina ez sufrimendu amaigabe horretan. Eta beste kontu bat: askok pentsatzen dute momentu baxuan dagoenean erabakitzen duela batek suizidatzea, baina ez, une gorenean, indartsuen dagoenean, erabakitzen du batek bere burua hiltzea, horretarako indarrak batzen dituenean. Gure kasuan ere hala izan zen. Dantza lehiaketa batera aurkeztekoa zen Ekai, hil baino pare bat hilabete aurretik kamera bat erosi zuen aurreztutako diruarekin, Durangoko Institutura joatekoa zen ikastera gero Ikus-entzunezko Komunikazioa ikasteko... Horixe zen bere mundua. Ilusionatuta ikusten genuen, baina aktore ona ere bazen eta ustekabeen harrapatu gintuen.

Zerbait gehitu nahiko zenuke?

Ni bizi naizen artean, ni ezagutzen nauenak Ekai ezagutuko duela, eta ni bizi naizen artean, Ekai bizirik egongo dela. Eta gauza bat esango dizut. Niri sekula ez zait gustatu 'agur' esatea, eta ez da Ekai suizidatu zelako. Gehiago izan naiz beti 'gero arte' esatekoa. Eta zuei ere horixe esango dizuet 'gero arte' eta besarkada bat, okerrik ezean martitzenean Elgoibarren izango garaeta, Lilan.

MAIATZAK 17, EGUAZTENA

LGTBI+ Fobiaren Kontrako Nazioarteko Egunaren harira, elkarretaratzea, Kalegoen plaza, 19:00etan.

MAIATZAK 18, EGUENA

Kafe tertulia: *Trans errealitateak: mitoak eta uste okerrak hausten*. Hiruki Larroxa emango du, Aita Agirre kulturgunean, 18:00etan hasita. Jendarte eraldaketarako pentsamendu kritikoa sustatzea bilatzen duen kooperatiba da Hiruki Larroxa. Hitzaldian, LGBTI+ fobiaren markoa azalduko dute eta Trans pertsonen inguruan dauden mitoak eta uste okerrak apurtzen ahaleginduko dira.

'Jolasa kalera barixakuetan' egitasmoa jarriko dute martxan gaur

Iazko udazkenean Jolasaren Astea antolatu zuten herriko hainbat eragilek Udalarekin elkarlanean, eta jolasa kalera atera zuten estreinakoz. Egitasmoak izan zuen harrera ona ikusita antolatu du orain Udalak *Jolasa kalera barixakuetan* egitasmoa, eta gaur egingo dute lehenengo saioa. Gaur hasita, maiatzeko eta ekaineko barikuetan egingo dute. Egun horietan 17:00etatik 19:00etara hainbat jolasetan parte hartzeko aukera izango dute 0-5 urte arteko umeek: eraikuntza jolasak, esperimendazio jolasak, sormena lantzeko jolasak... oro har, aire librean jolas librean aritzeko aukera izango da. Lekueder parkean egingo dituzte jolasak, eta euria egiten badu, parrokiako arkupeak erabiliko dituzte. Datorren barikuan, maiatzaren 12an, salbuespena egingo dute. Izan ere, Udal Ludotekak, Atxutxiamaiak eta Musika Eskolak elkarlanean umeentzako erromeria egingo dute



Azkuen, eta bertan jarriko dute jolasen gunea. Arduradunek zehaztu dute haurrak heldu batekin joan beharko direla jolas gunera, eta jolasa gidatzeko hezitzaileak egongo diren arren, haurra guraso edo tutorearen arduran egon beharko dela uneoro.

Orreagako batailari buruzko hitzaldiarekin itxi dute 'Mende ilunak argitzen' hitzaldi zikloa



Xabier Irujo historialariak Orreagako batailari buruzko hitzaldia eman zuen eguaztenean, eta horrekin amaitu zen Ilunberri Achademiak antolatutako *Goi erdi aroa: mende ilunak argitzen* hitzaldi zikloa. Historialaria da Irujo, eta Nevadako (AEB) Unibertsitateko Renoko Euskal Ikerguneko zuzendaria izateaz gain, Genozidio ikerketetan katedraduna ere bada. Orreagako batailaren errealitate eta fikzioaz mintzatu zen Irujo.

Biraka dantza taldeak udalekuak antolatu ditu uztaileko eta izena emateko epea zabalik dago

Biraka dantza taldeak 7 urtetik 14ra arteko ume eta gazteentzako udalekuak antolatu ditu. Uztailearen 3tik 28ra egingo dituzte, eta bi txanda egongo dira aukeran: uztailearen 3tik 14ra lehenengo eta uztailearen 17tik 28ra bigarrena. Txanda bakoitzak 150 euroko prezioa dauka. Dantza

eta mugimendua izango dute oinarrian: Jolasak, dantzak, akrobaziak, eskulanak, mugimendua, koordinazioa, imaginazioa eta abar landuko dituzte, modu ludikoan, eta ahal badute aire librean. Informazio gehiagorako 669 558 381 (Eva) telefonora deitu eta idatzi daiteke.

'Aldenik Alden' egitasmoko maiatzeko ekintzetan izena emateko epea astelehenean itxiko dute

Elgoibarko Izarraren Atxutxiamaiak egitasmoko arduradunek prestatu dituzte dagoeneko *Aldenik Alden* programaren barruan maiatzean egingo dituzten ekintzak. Bi izango dira: maiatzaren 13an, Lekeitioko Mendexa Park abentura parkera joango dira, eta hilaren 20an, berriz, *harrapa ezazu bandera* rol jokia egingo dute Zarautzen. Bi irteeren prezioa 21 eurokoa da (bazkideentzako, 19 euro). Arduradunek jakinarazi dute Mendexa Parkerako partaide muga gainditzen bada, zozketa egingo



dutela. Ekintza horietan izena emateko epea maiatzaren 8an amaituko da. Informazio gehiagorako eta izena emateko 943 741 626 telefonora deitu edo www.elgoibarkoizarra.eus webgunea kontsultatu daiteke.

Elgoibarko dantzariak Lezoko aurreku txapelketan hartu dute parte



Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolako dantzariak Lezoko aurreku txapelketan hartu zuten parte aurreko asteburuan, Erreterria, Amasa-Villabona, Tolosa, Pasai Donibane, Legazpi, Asteasu, Alkiza, Lezo, Zizurkil, Andoain eta Astigarragako dantzariekin batera. Elgoibarko ordezkariak sei izan ziren: Irene Toledano, Haizea Luluaga, Sare Meabebasterretxea, Uxue Cabrera, Duna Santos eta Elaia Etxaniz. Honenbestez, bukatu da aurtengo liga, eta orain, finalak jokatzea falta da.

Bestalde, maiatzaren 19an Elgoibarko bakarlarrien jaialdia izango da, 19:30ean, Kalegoen plazan. Dantzaldi horretan txapelketetan parte hartzen duten 11 eta 19 urte bitarteko 14 dantzari hartuko dute parte.

Dultzaineroen kalejira eta Udal Musika Bandaren kontzertua, domekan

Domeka goizean dultzaineroen kalejirak girotuko ditu kaleak, 10:00etatik aurrera. Eguerdian, berriz, Udal Musika Bandak kontzertua emango du Herriko Antzokian. Gorka Mujikak zuzenduko du emanaldia, eta bost pieza joko dituzte:

1. *African Symphony* (Van McCoy)
2. *Ireland: Of legend and lore* (R. Smith).
3. *Avatar* (J. Horner)
4. *Caballería ligera* (F. Von Suppé)
5. *Epilogue, lest we forget* (R. Jager)

Elgoibarko Idazlan Lehiaketako sariak hilaren 10ean banatuko dituzte

Ikasleen artean euskaraz idazteko zaletasuna sustatzeko helburuarekin, Elgoibarko VI. Idazlan lehiaketa antolatuko du Elgoibarko Udalak, Kultura, Euskara, eta Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapeneko Sailen bitartez. 8 eta 18 urte bitarteko gazteek hartu dute parte. Sari banaketa eguaztenean egingo dute, 18:30ean, Aita Agirre Kulturguneko areto nagusian.

Espainiako fanfarre eta txaranga lehiaketan hartu du parte Mauxitxak



Espainiako fanfarre eta txaranga lehiaketa egiten dute urtero Poza de La Sal herrian (Burgos, Espainia), eta aurten, Elgoibarko Mauxitxa txarangak ordezkatu du Euskal Autonomia Erkidegoa. Apirilaren 30ean izan zen txapelketa, eta guztira hamabi erkidegotako txarangek hartu zuten parte. "Duela hilabete batzuk jaso genuen gonbidapena, eta gure ezaugarriengatik honelako lehiaketa batean parte hartzea oso argi ikusten ez baguen ere, baietza eman genien. Inauterien ondoren hasi ginen lehiaketarako prestatzen". Zapatuan joan ziren Burgos aldera, eta turismo pixka bat egiteko

aprobetxatu zuten eguna. Domekan, berriz, bi lan izan zituzten lehiaketan. Goizean herriko plazan jarri zuten oholtzan zazpi minutuko pieza bat jo behar izan zuen talde bakoitzak, eta arratsaldean, kalejiran irten ziren talde guztiak banan-banan. Saririk gabe, baina pozik itzuli dira etxera Mauxitxako kideak, laudorio eta komentario positibo asko jaso zituztelako: "Erronka bat izan da guretzat eta oso harro gaude Burgosen eman genuenarekin. Abesti onak aukeratu genituela eta kalitate oneko musikariak garela esan ziguten. Asteburu zoragarria pasatu genuen, eta oso pozik itzuli gara bizitako esperientziarekin", esan dute.

'Railowsky bildumari begirada bat' erakusketa antolatu du Ongarrik

Ongarri argazkilari taldeak *Railowsky bildumari begirada bat* izeneko erakusketa inauguratuko du gaur zortzi, eta Kultur Etxeko erakusketa gelan jarriko dute ikusgai, hilaren 26ra arte. Railowsky fotogaleria 1985ean sortu zen Valentzian, eta ordutik izen bereko liburu-dendari lotuta egon da. Ibilbide horretan 300 erakusketa inguru egin dituzte, banaka zein taldeka, eta ospe handiko argazkilariak igaro dira aretotik. 2018. urtearen amaieran, Railowsky Fundazioa sortu zen, eta goerotik, Railowsky bildumaren zati bat Railowsky Fundazioan txertatu da. Horren begirada bat



izango dugu ikusgai Elgoibarren. Hilaren 13an, bisita gidatua egingo dute, Juan Pedro Font de Morak aurkeztuta, 19:30ean.



Iaz Mauxitxa txarangak antolatu zuen erraldoi topaketan ateratako argazkia.

Elgoibarkoekin batera, Nafarroako hiru kanpartsak hartuko dute parte bihar erraldoien topaketan

Haritz Euskal Dantzari taldea 50. urteurreneko ospakizunetan murgilduta dago, eta egitarauaren barruan, erraldoien topaketa egingo dute bihar. Elgoibarko Erbuze erraldoien konpartsarekin batera, Tafallako Asier Marco, Iruñeko Buztintxuri Erraldoiak eta Barañaingo Ezpelur taldeek hartuko dute parte. Lau konpartsek kalejira egingo dute Elgoibarko kaleetan barrena. 11:00etan hasiko dute kalejira Kalegoen plazatik, eta bukaeran, Kalegoen plazan jarriko dituzte ikusgai erraldoi guztiak.

ASIER MARCO (Tafalla)

Tafallako Asier Marco konpartsa 2014an sortu zuten ofizialki, baina aurretik hasiak ziren lanean. Tafallako Udal Konpartsako erraldoiek herriko haurrangan sortzen zuten grina ikusi ondoren, Marco familiak 2000. urtean erraldoi bat egin zuen eskuz. Lehen irudi hark errege atsegin bat irudikatzen zuen. Udal konpartsarekin batera atera zuten kalera errege hura, eta herritarren artean izan zuen harrera ona ikusita,



konpartsa ofizialeko erregrinaren erreplika egin zuen Marco familiak. 2014an benetako eta kalitatezko bi erraldoi aurkeztu zituzten, Florencio Alfaro eta haren emazte Francisca Perez. Bihar erraldoien bikote hori etorriko da Tafallatik Elgoibarrera, beste bi erraldoirekin, Aintzane eta Aingeru dantzarekin.

BUZTINTXURI (Iruñea)

Buztintxuri Erraldoi eta Buruhandien Konpartsa irabazi asmorik gabeko elkarte da, eta 50 bazkide baino gehiago ditu. 2012. urteaz geroztik, erraldoi eta buruhandiekin kalejira egiten dute, bai Iruñeko Buztintxuri auzoan, eta baita Euskal Herriko herrietan ere. Azpeitia, Azkoitia, Beasain, Deba, Soraluze, Gasteiz, Zarautz edota Zumaian egon dira aurrez, eta bihar Elgoibarrera etorriko dira. Lau erraldoi ekarriko dituzte: Mikel, Ana, Antonio eta Feli.



EZPELUR (Barañaín)

Barañaingo gaiteroen konpartsa ere Elgoibarren izango da bihar. 50 urte baino gehiago ditu talde honek, eta herri askotan jarduten dira festetan gaita jotzen. Eibarko San Joan jaietan, esaterako, urte askoan jo izan dute. Azken hamar urteotan, gutxi gorabehera, erraldioen konpartsa ere badute. Umeek dantzatzeko



moduko lau erraldoi txiki dituzte batetik, eta horiek, bereziki, Barañaingo auzoan ateratzen dituzte, hango festetan. Elgoibarrera erraldoi handiak ekarriko dituzte: Joalduna, Zuberoako zamaltzaina, Iruñeko boboa eta ezpata-dantzaria.

ERBUZE (Elgoibar)

Elgoibarko Erbuze konpartsa Haritz Euskal Dantzari Taldeak gidatzen du, eta haiek dira erraldoiak dantzan jartzearen arduradunak. Herritarren artean aski ezagunak dira dagoeneko Elgoibarko erraldoiak, eta bihar beste behin ikusteko aukera izango da: Errege-erreginen bikotea, eta Aszentzio Alzola eta Katalina Ibarra Altzolako dorretxeko jaun-andreak irtengo dira kalera, tratulariarekin.



MERLIN MEDINA

Abokatua eta berdintasun gaietan aditua

 Ainhoa Andonegi

Martxoaren 30ean Autozaintzaren Kontzientziaren Nazioarteko Eguna izan zen, eta horren harira, zaintzaileei begirako tailer bat antolatu zuen Berdintasun Sailak. 'Eta, zu nork zaintzen zaitu?' izenburupean, Merlin Medinak (1978, Errepublika Dominikarra) eman zuen saioa. Etxeko langileei zuzendutako saioa izan zen, zaintzan eta etxeko lanetan aritzen direnentzako, eta antolatzaileek esan dutenez, gauza interesgarriak landu zituzten guztien artean. Zaintzaileen lanaren garrantzia nabarmendu zuten, eta zaintzaileak zaintzeari arreta jarri behar zaiola, berandu baino lehen.



“Karga emozional handiko lana da zaintza, eta zaintzaileari lagundu egin behar zaio”

Zertan datza 'Eta, zu nork zaintzen zaitu?' tailerrak?

Zaintza zer den azaltzen dugu, batez ere. Zaintzea ez da zeregin erraza, eta dedikazio nahiz ahalegin handia eskatzen ditu. Aldi berean, ongizatea eskaintzen duen lanbidea da. Pertsona bat zure arduran dago, eta pertsona hori ondo egoteko egiten duen ahalegin horrek satisfazioa ematen dio zaintzaileari. Nolabait esateko: zaintzen ari zaren pertsona hori zure ahaleginagatik hobeto egotea lortzea oso pozgarria da. Pozgarria, baina aldi berean, gogorra ere bada zaintza lana. Tailer hauetan saiitzen gara babeserako taldea sortzen, esperientziak partekatzeko eta batak besteari laguntzeko.

Zein da gaur egun zaintzan ari direnen profila?

Migranteak dira gehienak, behar ekonomiko handia dutenak, eta %90, emakumezkoak. Hona iristen direnean aurkitzen duten lana hori da, eta hor sartzen dira. Asko paperik gabe iristen dira eta egoera horretan ostalaritzan sartzea ere zailagoa da. Zaintzaile hauek adinekoenganako errespetuan hezi dituzte, eta hori igarri egiten da zaintzerako orduan. Mimos eta maitasunez zaintzen dituzte adinekoak. Neska gazteei gomendatzen diegu zerbait ikastea, eta animatzen dira Lanbideko ikastaroren bat egiten eta horri esker aurkitzen dute lana tailerretan.

Zaintzaileak ere behar izaten du zaindua izatea. Nola zaindu dezakegu zaintzailea?

Kontratua dutenek badute legez eguneroko

atsedena eta asteburuetakoa, eta denbora hori errespetatu egin behar zaie, derrigorrez. 24 orduz etxe baten etxeko lanak egiten eta adinekoren bat zaintzen egotea oso gogorra da. Atsedean hartzea ezinbestekoa da. Beste batzuek orduka lan egiten dute, eta kanpotik arinagoa dirudien arren, orain etxe batean, gero beste batean eta agian gauze ospitalean ibiltzea ere oso nekagarria da. Beste kasu batzuk desberdinak dira, familiakoen zaintza, esaterako. Asko senideren bat zaintzen aritzen dira, dela ama, izeba edo amona zaintzen, eta horiek askotan ez daukate atsedunik. Zaintzaile horiek zaintzeko, denbora librea ematea da garrantzitsua. Planak egin eta zaintzaile hori zaintza eremutik atera behar dugu tarteka: mendira, erosketak egitera, zinera edo beste edozein lekutara. Kasu horietan oso ohikoa izaten da zaintzaileak ezetz esatea, ez duela nahi, ez daukalako zaintzen ari den pertsona hori norekin laga, baina horretarako irtenbideak aurkitu behar

dira. Zaintzaile horren deskantsurako kontratatu daiteke zaintzaile bat orduka, eta hori onuragarria izango da zaintzailearentzat zein zandutako pertsonarentzat, beste norbaitekin egoteak ere mesede egingo diolako. Senideen "borondatezko" zaintzan, karga konpartitzea oso garrantzitsua da, ezin dugu zaintzaren karga guztia pertsona berarengan utzi. Tailerretan eta hitzaldietan parte hartzeak asko laguntzen du, deskargua egiten dute, beraien egoera berean dagoen jendea ezagutzen dute eta hori oso ondo etortzen zaie. Nik denei esaten diet deskantsurako tartea hartu behar dutela. Astelehenetik barikura zaintzan ari denak, asteburuan ezin du zaintzako beste lan bat hartu, nahiz eta beste etxe batean izan. Zaintzaile batzuk behar ekonomiko handia dute eta ez dute deskantsatzen, eta horrek arazo handiak sortzen ditu.

Zeintzuk dira zaintzaileak zaintzea behar duela erakusten duten sintomak?

Gorputzak berak ematen ditu alarma seinaleak. Nekea, tristura, negargura, insomnia, bakartzea, energia falta, estresa, kontzentratzeko zailtasuna... Askok izan daitezke, baina horiek izaten dira ohikoenak. Zaintzen ari den pertsonari garrasi edo errieta egiten hasteak erakusten du zaintzaile horrek laguntza behar duela. Karga emozional handiko lana da zaintza, eta zaintzaileari lagundu egin behar zaio, baina berak ere laguntza eskatzen ikasi behar du. "Ezin dut gehiago" esateko gai izan behar du zaintzaileak. Ingurukoei laguntza eskatu eta irtenbideak bilatu behar dira, beranduegi izan baino lehen, bestela depresio egoera batean sartzea oso ohikoa izaten da, eta hortik irteeta benetako arazo bilakatu daiteke.

Adineko askori gogorra egiten zaie zaintzeko beharra dutela onartzea, eta ez dute zaintzailerik nahi izaten. Kasu horietan zer egin daiteke?

Apur bat engainatu behar dira. Postura horretan dagoenari ezin zaio kolpera egun osoko zaintzaile bat ekarri, baina orduka probatzen hasi daiteke. Hasieran ordu pare bat, gero agian etxeko lanak egiteko eta bera garbitzeko, eta poliki-poliki orduak gehitzen joan. Hasieran haserre egongo da, baina konfiantza hartzen joango da eta azkeneko kariño handia hartzen diete zaintzaileei. Dena dela, lehenengo gauza laguntza behar dutela onartzea da. Bizitzako zikloa

"Etxeko langile bati legeak ezartzen duen gutxieneko soldata ordainduta ere, kontuan eduki behar da 24 orduko lan jardunagatik ordaintzen diogula"

dela ulertarazi behar zaie, eta edonori gertatu ahal zaiola azaldu. Bere beharrak errespetatzea oso garrantzitsua da. Egun baten ez badu etxetik irten nahi, ez dago beharrik, eta ohetik jaikitzeko gogorik ez badauka, ba ohean garbituko dugu eta gero ipuin bat irakurri edo berarekin hitz egingo dugu. Zaindutako pertsonaren beharretara egokitu behar du zaintzaileak. Egunerokoak erakusten du zaintzen, ez dago hori baino eskola hoberik

Aholkularitza juridikoa ere eskaintzen duzu zuk. Alor horretan, zein egoeratan dago zaintza?

Kontratatzaileri beti esaten diot zaintzarako kontratatu behar duenari laguntzeko, eta paperak legeztatzeko aukera baldin badauka, egiteko. Prozesua luzea da, eta hori guztia azaltzen diet. Pertsona batzuei ezin zaie kontraturik egin hasieran, baina hiru urte Espainian egon ondoren, egin daiteke kontratua. Irregularitasun handiak ikusi izan ditut, baina askotan beldurragatik edo ezjakintasanagatik izaten da. Normalean kontratatzailearekin hitz eginda ez da arazorik egoten, baina zaintza alorrean lan handia daukagu oraindik. Zaintzaren eta etxeko langileen nazioarteko eguna izan zen martxoaren 30ean eta komunikabideetan ez nuen horri buruzko aipamenik ikusi. Ez da horretaz hitz egiten, ikusezinen eguna dela dirudi, eta zaintza gure inguruan dago uneoro. Mugimendu feminista lan handia egiten ari da zaintza erdigunean jartzeko, baina oraindik ere esplotazio handia dago. Etxeko langile bati legeak ezartzen duen gutxieneko soldata ordainduta ere, kontuan eduki behar da 24 orduko lan jardunagatik ordaintzen diogula, eta ez zortzi orduko jardunagatik, eta ordu asko gauekoak direla, gainera. Askok uste dute adinekoaren ondoan eserita egoten direla konpainia egiten bakarrik, baina 24 orduz hor egotea oso gogorra da. Langabezia kobratzeko aukera behintzat lortu dugu, eta hori bada zerbait, baina lanean jarraitu behar dugu.

Bi jardunaldiren faltan, Ohorezko Mailara igotzea lortu du C.D. Elgoibarreko senior taldeak

Club Deportivo Elgoibarreko nesken senior taldeak mailaz igotzea lortu du, Erregional mailatik Ohorezko Mailara. Bi jardunaldi falta dira denboraldia amaitzeko, baina matematikoki, goian daude, joan den apirilaren 29an Irungo Dunboa-Eguzkiren kontra 4-1 irabazi ondoren Mintxetan jokatu zuten neurketan. Astelehenean, maiatzaren 1ean, jakin zuten matematikoki mailaz igotzea lortu zutela. Eta Ohorezko Mailara igo izana behar bezala ospatzeko aukera bihar (maiatzak 6) izango dute etxean, Mintxetan jokatuko baitute hurrengo partida, Oriokoren kontra (18:30ean). Taldetik dei berezia egin diete zaleei Mintxetara gerturatzeko, mailaz igo izana elkarrekin ospatzera.



Maila galdu dute Alcortak zein Gaurvek



Denboraldi zaila izan da bukatzeaz dagoena Sanlo eskubaloi taldeko senior mailako bi talde nagusientzat, Gaurvek (senior emakumezkoak) zein Alforta Forging Groupek (senior gizonezkoak) galdu baitute maila. Gaurvek joan den apirilaren 16an jokatu zuen ligako azken partida. Zilarrezko Ohorezko mailako azken postuan sailkatu dira, eta horrenbestez ezin izan diote mailari eutsi. Talde oso gaztea osatu dute aurten eta horrelako maila lehiakor batean aritzeko esperientzia hartzea izan dute denboraldi honetarako helburua, Lorea Gabilondo entrenatzailearen berbetan. "Esperientzia hartzeko eta jokalariai zailtzeko

denboraldia da aurtengoa". Beste horrenbeste esan daiteke Alcorta taldeaz. Sailkapeneko zulotik irten ezinda aritu dira denboraldi osoan, eta azkenurrekoa harrapatzeko aukerak izan dituzten arren, ez dute lortu. Estatuko Lehen Nazional mailako Liga txapelketa bukatzeko bi jardunaldi falta diren arren, matematikoki maila galdu du Alcortak. Hain zuzen ere, zapatu honetan jokatuko du Alcortak etxeko azken partida, 19:00etan, Romoko Broker Kirol taldearen aurka. Taldeari babesa eman eta denboraldia agurtzeko aukera polita izango dela esan dute Sanlotik eta taldea animatzera joateko deia egin diete zaleei.

2023ko kirol udalekuetan izena emateko epea, zabalik



U da sasoirako kirol udalekuak antolatu ditu Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak, 7 eta 15 urte bitarteko haurrei zuzenduta (2007-2016 urte bitartean jaiotakoak). Izena emateko epea ekainaren 2ra artekoa izango da, eta interesdunek Olaizaga kiroldagiko harreraren edo olaizagaharrera@hotmail.es posta elektronikora idatziz eman ahal izango dute izena. Patronatuko bazkideek 106,20 euro ordaindu beharko dute, eta bazkide ez direnek 116,50 euro.

Ekainaren 26tik uztailaren 21era, astelehenetik ostiralera, goizeko 9:30etik 12:30era, hainbat

kirol (eskalada, atletismoa, mendi bizikleta, orientazioa, futbola, eskubaloia, herri kirolak, frontoiko jolasak, mendizaletasuna, patinajea, padela, tenisa, Mintxetako igerilekuak, ur jolasak, zumba, e.a.) egiteko aukera izango dute 2011 eta 2016. urteen bitartean (biak barne) jaiotako haurrek. 2007-2010 urteen bitartean jaiotako gazteek, berriz, Goi Mailako Kirol Udalekuetan maila handiagoko kirola egiteko aukera izango dute. Aipaturiko kirolak egiteko Olaizaga eta IMH kiroldegiak, Mintxetako kirol instalazioak, igerilekuak, Ikastolako Frontoia eta herriko beste zenbait gune erabiliko dituzte.

Eneko Ortegak bigarren egin zuen zapatuan Arantzazuko Igoeran

Sasoiko dabil Eneko Ortega eta joan den asteburuan beste garaikur bat gehitu zuen lorpenen zakura. Izan ere, bigarren egin zuen zapatuan Oñatin jokatu zuten Arantzazuko Igoera lasterketan. Aloña Mendi Txirringulari Elkarteak antolatzen du Arantzazuko Igoera eta aurtengoa 53. edizioa izan da. 70 kilometroko ibilbidea osatu zuten txirringulariek, Oñatiko Zubillagako industrialdean hasi eta Arantzazuko gainean amaitzeko, eta Elgoibarko Lagun Taldeako Eneko Ortegak (Besa-Laboral Kutxa) bigarren egin zuen sailkapen nagusian, Iker Gomez Lopez de Goikoetxearen atzetik (Quesos Albeniz). 1:41:11ko denboran osatu zuen irabazleak proba, eta hogeita sei ehunenera sartu zen Ortega helmugan. Podiuma Gari Ugarte Larreak (Bellota Goierri) osatu zuen. Larreak berak jaso zuen mendiko saria ere, eta taldekako sailkapenean, Limousin Oriakoak



izan ziren garaile, Ulma Aloña Mendi eta Huesca La Magiakoen aurretik.

LANA

Eskaerak

Adinekoak zaintzeko edo laguntzaile lanak egiteko prest nago. Berehala lanean hasteko moduan nago.

Esperientzia daukat.

632 415 374

Adinekoak zein umeak zaintzeko prest nago. Orduka. Lan horiek in zerikusia duten ikasketak eginak ditut. Garbiketa lanak ere egiten ditut.

631 785 168

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka, gauetan ere bai. Titulua eta esperientzia ditut.

602 490 595

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan, orduka edo asteburuetan.

640 881 328

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan, orduka edo asteburuetan.

642 578 943

Adinekoak zaintzeko zein garbiketa lanak egiteko prest nago. Etxeko langile moduan ere bai.

602 043 190

Adinekoak zein umeak zaintzeko prest nago. Etxeko garbiketa lanak ere egiten ditut.

604 121 670

Adinekoak zaintzeko nahiz garbiketa lanak egiteko prest nago. Ordu-tegi malgua daukat eta gauetan lan egiteko ere prest nago.

631 677 339

Adinekoak zaintzeko nahiz garbiketa lanak egiteko prest nago. Ordu-tegi malgua daukat eta gauetan lan egiteko ere prest nago.

631 212 497

KINTO OSPAKIZUNAK

1973an jaiotako en kinto ospakizuna, ekainaren 10ean, Belaustegin. 12:00etan luntxa, Zubi Ondo elkarte-an. Autobusa 14:30ean, Txankakuan. 90 € sartu behar dira Laboral Kutxan, maiatzaren 31rako: ES69 3035 0007 27 0071143415

Merkatu txikiko iragarki-ak bi astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarki-ak ordaindu egin behar dira.

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€ . Bestelakoak: 10€. Iragarkiari erretratua jarriz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€. Bestelakoak: 8€. Iragarkiari erretratua jarriz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.

 <p>Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas Euzko Eskola Administrazioaren Lanbide-Itzultzailea</p>  <p>ROSA Mª PINTADO</p> <p><i>Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p>660 969 679 rosapf@telefonica.net</p>	<p>Gure etxepeko bizilagun batzuek balkoiak itxi nahi dituzte, edo kristalezko itxutura jarri, baina etxejabe batzuk ez daude erabaki horrekin konforme. Balkoiak ixtea nahi duten gehienak kristalezko itxituren aldekoak dira, baina oraindik ez dute ezer erabaki. Jakin nahi nuke balkoiak ixtea posible den.</p> <p>Balkoia etxebizitza bakoitzaren azaleraren parte izan arren, fatxadari kokatuta dago, eta elementu komun izaera dauka, beraz, etxejabeak ezin du bere erabakiz balkoia itxi, komunitatearen eta kuoten 3/5enak adosten ez badute behintzat, eta betiere, administrazioaren aurretiazko baimenarekin. Posible da aurrez ere antzerako itxituren bat egin izana eta komunitateak ez esan izana ados ez dagoela, edo etxejabe kalteturen batek ez azaldu izana bere kexa. Komunitatearen adostasuna eta administrazioaren baimena lortu ondoren, komunitateak berak erabakiko du zein itxitura mota erabiliko duen. Etorbizunean beste etxejabe batzuek egin ditzaketan itxiturekin batasuna izan beharko dute.</p> <p>Ondorioa: Legea aipatutako bidetik joan ohi da gehienetan, baina auziren batek baimendu izan du kristal mugikorren bidez ixtea balkoia, lehendik dagoen esturkturan jarrita, eraikinaren estetikari kalterik egiten ez diola arrazoituta.</p> <p>GO3R AHOLKULARI KOLABORATZAILEA San Bartolome, 2</p>
--	---



Zorionak, **Nora**, 9 urte bete dituzulako! Muxu handi bat familiako guztion partez. Asko maite zaitugu.



Zorionak, **Kira!** Urtetxo bat dagoeneko! Izugarri maite zaitugu. Patxo potolo bat etxekoan eta bereziki, Ekhiaren partez. Segi orain arte bezain alai.



Zorionak, **Luken**, bihar zure urtebetetze eguna delako. Elgoibarko familia guztiaren partetik asko maite zaitugu.



Zorionak, **Jakes** igandean zure urtebetetze eguna delako. Elgoibarko familia guztiaren partez, asko maite zaitugu.



Zorionak, **Perfecto** eta **Mari**, maiatzaren 10ean 48 urte beteko dituzuelako ezkontuta. Zuen biloben partez. Eta, zorionak zuri ere, **Ibon**, maiatzaren 9an 8 urte beteko dituzulako. Aiton-amonen, osabaren eta anaia Oierren partez.



Zorionak, **Iker**, atzo 9 urte bete zenituelako, eta, zorionak zuri ere, **Haritz**, bihar 12 urte beteko dituzulako. Ondo-ondo pasa, kuadrillakoen partez. Segi orain arte bezain jator.



Zorionak zuen 60. ezkon urteurrenean. Segi holaxe urte askoan elkarren ondoan eta jarrai dezagula urtez urte zuekin ospatzen. Muxu bat familiako guztion partez.

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€.
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO
BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
Erretratu bakarreko agurra: 3,50€.
Argazki bikoitza: 6€ Hirukoitza: 8€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.



- IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- MULTIKOPISTAK
- FOTOKOPIAGAILUAK
- ERLOJU INDUSTRIALAK
- MARRAZKETA MATERIALA
- INFORMATIKA
- FAXA

MEKANOSA
Errosario, 27-Elgoibar
943 740 284



30. urteurrenarekin
5 kamera zozkatuko ditugu.



Zozketan parte hartzeko @ikus_optika_audio instagramean sartu eta pausoak jarrai itzazu.



EXPRESS ESKAINTZAK!

**COMBI BOSCH
KGN39XIEA
HOZKAILUA**



E

859 €

- No frost
- 366 litro edukiera
- 203zm-ko altuera
- Hatz-marken kontrako herdoilgaitza

MILARBIRE
Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es
Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

5 BARIKUA

17:00 'Jolasa Kalera barixakuetan'. Lekuederren.

6 ZAPATUA

11:00 Erraldioen Topaketa. Haritz EDT-k antolatuta, Kalegoen plazan.

7 DOMEKA

10:00 Elgoibarko dultzaineroen diana. Kalegoen plazan hasita.

10:00 Bisita gidatua: 'Dolmenen ibilbidea'. Euskaraz izango da. Izena eman behar da: 657 794 677 / info@begi-bistan.com

12:30 Kontzertua: Elgoibarko Udal Musika Banda. Gorka Mujikaren zuzendaritzapean, Herriko Antzokian.

1. *African Symphony* (Van McCoy)
2. *Ireland: Of legend and lore* (R. Smith).
3. *Avatar* (J. Horner)
4. *Caballería ligera* (F. Von Suppé)
5. *Epilogue, lest we forget* (R. Jager)

9 MARTITZENA

18:00 Dokumentala: 'Mi pequeño gran samurai'. Lilan. Ez da izenik eman behar. Berdintasun Sailak eta Lila Emakumeen Etxeak antolatuta.

12 BARIKUA

17:30 Erromeria umeentzat. Azkueko zelaian. Antolatzaileak: Ludoteka, Atxutxiamaiak eta Inazio Bereziartua Musika eta Dantza Eskola.

18:30 7. arteari buruzko kafe tertulia. Haizeak antolatuta, Loredi Salegik gidatuko du saioa. Lilan.

Jon Aranoa
Guillermo Torres



Elgoibar
Albaitaritza

San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel.: 943 740 704 - 639 067 337
Astelehenetik ostiratera: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30
Larunbatak: 11:00 - 13:00

Itsepeindegi zerbitzua daukagu.
Deitu ordua hartzeko.

PINTURA ETA DEKORAZIOA



CORDON VILARCHAO

cordonvilarchao@telefonica.net
San Roke, 7 - Olosope, 18, Pab. 25-26

943 740 570 / 636 986 162



LAGUNAK
colchonaria textil hogar



180 cm-ko luzeerako koltzoietan
%5 gehituko da prezioa, eta 200cm-koetan, **%10**.

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com

Luzeera: 90 | 105 | 135 | 150
Prezioa: 735€ | 810€ | 995€ | 1075€

OPARI
Barko argoviskoa

1. STRETCH BEADLINE EHUNA / 2. MOTON
3. AIRFILL / 4. ATZERKO HIRU DIMENTSIOKO EHUNA
5. VISCOELASTIC / 6. HEPERSOFT
7. BIOCELL PLUS / 8. POLITEK
9. ARTIKULAZIOA ETA TRANSPAZIBRARIKO PROFILATZEA

Zinea

'Los tres mosqueteros:
D'Artagnan'

5 barikua: 19:00

6 zapatua: 19:00 / 22:15

7 domeka: 19:00

8 astelehena: 21:00

2023ko botika ordutegiak: 09:00-13:00 / 16:00-20:00

GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00 Larunbatak: 09:00-14:00 (■)

OHARRA: 2023an ez da iluntzeko farmazia zerbitzurik egongo Elgoibarren.

MAIATZA

5 BARIKUA

6 ZAPATUA

7 DOMEKA

8 ASTELEHENA

9 MARTITZENA

10 EGUAZTENA

11 EGUENA

12 BARIKUA

Egunez

Arriola

■ Fernandez / ■ Barrenetxea

■ Fernandez

Yudego

■ Oruesagasti

Barrenetxea

■ Ibañez

Garitaonandia

2023 urte guztian, gauzez: 22:00-09:00**Cristina Sanchez Castaño - Julian Etxeberria, 7 (Eibar)
943 203 052**

■ Fernandez:

Herriko Enparantza,4
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

■ Ibañez:

Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

■ Oruesagasti:

Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384**EUSKARA SUSTATZEKO UDALAREN DIRULAGUNTZAK**Eskaerak aurkezteko **azken eguna urriaren 30a** izango da:

- UEUk antolaturiko ikastaroak egiteko, EHUK eta HIK HASIk euskaraz antolatzen dituzten uda ikastaroak egiteko eta Aisialdiko begirale edo zuzendari titulu ofiziala eskuratzeko ikastaroak euskaraz egiteko dirulaguntzak.
- Elgoibarko establezimenduetako errotulu nagusia euskara hutsean edota irudi korporatiboa euskaraz edo ele bietan jartzeko dirulaguntzak.
- Herriko enpresetan euskararen erabilera bultzatzeko dirulaguntzak.
- Gidabaimenaren azterketa teorikoa euskaraz gainditu izana saritzeko dirulaguntzak.
- Elgoibarko Udal Euskaltegitik kanpo euskara ikasteko dirulaguntzak, baita barnetegietarako ere (laguntza hauek eskatzeko azken eguna irailaren 15a izango da).

Eskabideak eta beharrezkoak diren agiriak aurkez ditzakete interesdunek HAZen,Herriarren Arreta Zerbitzuan (Santa Ana kalea 2, behe), edota telematikoki **Udalaren webguneko Herriarren Atarian.****Informazio osagarria** lortu nahi dutenek Euskara Sailean izango dute horretarako aukera (943 744 366, euskara@elgoibar.eus).**ELGOIBAR**
UDALA
AYUNTAMIENTO



Iñigo Lamelas





I. URTEURRENA

Maria Espada Gutierrez

2022ko maiatzaren 6an hil zen, 73 urte zituela.

Zeruko gure aingerua;

faltan sumatu baino gehiago, zure beharra dugu.

Zure falta sentitu baino gehiago, zu behar zaitugu.

Zure agurrarekin bat, gure bizitzaren zati bat eraman zenuen.

Bihotzez maite zaitugu,
betiko, zure seme-alabak, bilobak
eta gainerako senideak.
Maite zintuzten guztiak ahaztu gabe.



I. URTEURRENA

Emilio Rumayor Maldonado

2022ko maiatzaren 8an hil zen, 93 urte zituela.
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da,
domekan, maiatzaren 7an, 11:00etan,
Elgoibarko Bartolome Deunaren Eliz-parrokian.
Joango zaretenoi, alde zuretik eskerrak.

Ezin ikusi, baina bai senti.

***Joan zinen arren,
gure bihotzetan beti zaude bizirik.***

Bihotzez zure familiak



II. URTEURRENA

Ana Mari San Martin Aranberri

2021eko maiatzaren 5ean hil zen, 79 urte zituela.
Haren oroimenez II. urteurreneko meza izango da,
domekan, maiatzaren 7an, 11:00etan,
Elgoibarko Bartolome Deunaren Eliz-parrokian.
Joango zaretenoi, alde zuretik eskerrak.

Maite zaitugu.

Etxekoak



G R E M I O N E N GIDA



LEIHOAK



**LODOSO
LEIHOAK**

SIGMA INDUSTRIALDEA, 223
lodosofj@gmail.com
943 743 490

ITURGINTZA



PAGOAGA S.A.

BULEGOA ETA ERAKUSKETA
 Pedro Migel Urruzuno, 8
943 740 512
 Faxa: 943 743 565
 tienda@pagoagasas.com
 www.pagoagasas.com

BILTEGIA
 San Antolin, 13 - ELGOIBAR
 taller@pagoagasas.com
943 740 279

AROZTEGIA



BIENA S.L.
AROZTEGIA

Ermuaranbide, 12-14-16
 tel/fax. 943 743 116
 www.biena.eus
 info@biena.eus



PINTURA



BIOK
 dekorazioa

Uparitzaga, 14 - Elgoibar
943 741 552
606 431 120
 biok@biokdekorazioa.com

ITURGINTZA



SANTANA

Igor Santana

ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazamdi kalea, 17, behea
 Elgoibar
943 740 530 / 605 714 905
 santanaiturgintza@gmail.com

AROZTEGIA



iraolagoitia

aroztegia - altzariak - elxe-aldaketak
 Kurutz-gain Industrialdea, 9
 20850 Mendara
943 756 112
636 497 485
 www.iraolagoitia.com

ELEKTRIZITATEA



egoluz
 ELEKTRIZITATEA S.L.

Andres: 630 957 345
677 512 462
 Pedro Migel Urruzuno, 14 behea
 20870 ELGOIBAR

Bulegoa: **943 200 697**
 ego.luz@hotmail.com

**IZURRIEN KONTRAKO
TRATAMENDUAK**

PLAGANATURA



Cuidamokolo Sokal Ambiental

618 198 760
 ivan@plaganatura.eus
 www.plaganatura.eus

AROZTEGIA



IMAR
AROZTEGIA

Olaso industrialdea, 17 behea
943 531 471
609 054 978
 carpinteriaimar@hotmail.com
 @carpinteria_imar

Gidan agertzearen onurak!

23,10€ hilan
12 aliz urtean
4.885 ale astero

22 Eren truke, hileru, zure enpresaren datuak eta irudia erakutsiko ditugu **BARREN** astekarian.

BARREN astekaria da Elgoibar eta Mendaron erakusleihu ikusiena.

4.885 ale banatzen ditugu Elgoibarren eta Mendaron **DOAN**.

Eman bultzada euskarari eta lagundu gure proiektua finantzatzen.

 **943 743 704**
 **688 769 657**

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

Aita Agirre Kulturgunea. 3. 3. ezk
 20870 ELGOIBAR